

JARRAIBIDEAK, 2017ko EKAINAREN 7koak, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEAREN, 2017ko ABENDUAREN APARTEKO ORDAINSARIARI DAGOKION ZATIAN UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO LANGILEEI NOMINA ORDAINKETA AURRERATUA GESTIONATZEKO NEURRIEI BURUZKOAK.

UPV/EHUko Errektorearen 2017ko ekainaren 7ko jarraibideetan (2017ko abenduaren aparteko ordainsariari dagokion zatian Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko langileei nomina ordainketa aurreratzeko), agindua ematen zaio Gerentziari beharrezko neurriak har ditzan 2017ko abenduaren aparteko ordainsariari dagokion zatia nomina bidez aurreratzeko, betiere baldintza hauek kontuan hartuta:

1. Nomina aurreratu ahal izango zaie kontratu edo izendapenaren bitartez UPV/EHUko zerbitzuak eskaintzen dituzten langileei, baldin eta kontratu edo izendapen hori 2017ko abenduaren 31n edo beranduago amaitzekoa bada.
2. Aurrerapenaren zenbatekoa 2017ko abenduaren aparteko ordainsariari dagokion zenbatekoaren %25 izango da.
3. Jarraibideok ez zaizkie aplikatuko uztailaren 13ko 20/2012 Legegintzako Errege Dekretuko 2.6 artikuluko egoeran dauden langileei, hau da, arduraldi osoa izanda lanbide arteko gutxieneko soldata baino 1,5 gutxiago jasotzen dutenei.

Adierazitakoa betetzeko, eta aplikatuta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuen 189. artikulua ("*Gerentea UPV/EHUren administrazio eta ekonomia zerbitzuak antolatu eta kudeatzeaz arduratzen da, Gubernu Kontseiluak emandako xedapenei jarraiki, eta errektorearen jarraibideen arabera jardungo du*"), honakoa

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Onartzea nomina ordainketak aurreratzeko prozedura, 2017ko abenduaren aparteko ordainsariaren %25 aurreratzeko, hain zuzen ere. Prozedurarako baldintzak:

1. Nomina aurreratu ahal izango zaie kontratu edo izendapenaren bitartez UPV/EHUko zerbitzuak eskaintzen dituzten langileei, baldin eta kontratu edo izendapen hori 2017ko abenduaren 31n edo beranduago amaitzekoa bada.
2. Aurreratuko den zenbatekoa kalkulatzeko, 2017ko maiatzako egoeraren arabera 2017ko abenduaren aparteko ordainsari moduan ordaindu beharko litzatekeen kopurua erabiliko da.
3. Prozedura horri jarraituz izandako nomina aurrerapenak konpentsazio bidez, eta ofizioz, itzuliko dira 2017ko abenduan, hilabete horretako aparteko ordainsariaren kargura; ezinezkoa bada aparteko ordainsari horren bidez

itzultzea edo konpentsatzea, 2017ko abenduko nominaren kargura eta, beharrezkoa balitz, hurrengo hilabeteetako nominaren kargura, egingo da.

4. Horregatik, eta kalkuluak egiterakoan kontuan izan den egoera aldatzen bada (hau da: aldatetarik egon bada 2017ko irailaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra arteko epean administrazio eta zerbitzueta lan kontratudun langileen kasuan, eta 2017ko uztailaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra arteko epean gainerako langileen kasuan), eta horrek eragina badu aurreratutako zenbatekoan, doiketak egingo dira 2017ko abenduko aparteko ordainsariari dagokion zenbatekoa zehazterakoan, eta, ofizioz, konpentsatuko da aurreko paragrafoan zehaztutakoari jarraituz.
5. Aurrerapena emanda izanda unibertsitatearekin daukaten harremana dirua itzultzeko data baino lehenago amaitzen den langileen kasuan, jasoko duten azken nominan egingo da deskontua. Hori ezinezkoa balitz, edota nahikoa ez balitz, hamabost egun izango dituzte zor dūten kopurua sartzeko unibertsitatearen kontuan, unibertsitatearekin daukaten harremana bukatzen denetik kontatzen hasita.

Hala ere, aurreko paragrafoan aipatutako egoeran dauden langileen kasuan uste izatekoa bada berehala hasiko direla berriro eskaintzen zerbitzuak UPV/EHUn, edota, asko jota, egoera batetik bestera hamabost egun naturaleko tartea egongo dela, unibertsitatearekin daukaten harremana amaitzean ez dute dirurik sartu beharko UPV/EHUren kontuan nahiz eta zorretan egon, hurrengo kontratuko nominetatik kenduko baitzaie.

6. Jarraibide hauek ezarpen eremuan egonik 2017ko ekaineko aparteko ordainsariaren aurrerapena jaso zuten langileek, ondoko aukerak izango dituzte:
 1. Aurrerapena eskatzea.
 2. Aurrerapenari ezetz esatea.
 3. Hurrengo puntuan zehazten den epearen barruan ez bada ezer adierazten, langileak lehenengo aukera nahi duela ulertuko da, hau da, aurrerapena eskatzea.

Eskariak aurkezteko epea 2017ko ekainaren 13ko 8:00etatik ekainaren 16ko 13:00ak artekoa izango da, eta UPV/EHUko Langileen Atariaren bidez aurkeztuko dira ("Soldata aurreratzea" atala).

Eskaria behin eginda, langileak aukera izango du beste eskari bat egiteko, aurrekoa aldatzeko, betiere adierazitako epearen barruan. Egindako azken eskaria izango da balioduna.

Langileen Atarian ikusi ahal izango da, eskaria egin baino lehenago, 2017ko abenduko aparteko ordainsariari dagokion diru kopuruaren kalkulua.



7. Jarraibide hauen eraginpean egonik 2017ko ekaineko aparteko ordainsariaren aurrerapenik jaso ez zutenek aurrerapen horri zein aurrekoei uko egin izanagatik, 2017ko abenduako aparteko ordainsariaren %25 aurreratzeko eskaria egin ahal izango dute.

Horretarako eskaera egin beharko diote Nominen Zerbitzuari, epe berean eta webgunean xede horretarako argitaratuta dagoen inprimakia erabilita.

8. Jarraibideok ez zaizkie aplikatuko uztailaren 13ko 20/2012 Legegintzako Errege Dekretuko 2.6 artikuluko egoeran dauden langileei, hau da, arduraldi osoa izanda lanbide arteko gutxieneko soldata baino 1,5 gutxiago jasotzen dutenei.

Bigarrena.- Eman biezaie jarraibideon berri UPV/EHUko kasuan kasuko zerbitzuei, aurrera eraman ditzaten bertan adierazitako moduan.

Leioa, 2017ko ekainaren 7a

Miren Lorea Bilbao Artetxe
UPV/EHUko GERENTEA

